

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-7039

5/2003 LEGEA, abenduaren 15koa, Euskadiko Garraio Agintaritzarena.

Eusko Legebiltzarrik abenduaren 15eko 5/2003 Legea, Euskadiko Garraio Agintaritzarena, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ABENDUAREN 15EKO 5/2003 LEGEA, EUSKADIKO GARRAIO AGINTARITZARENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

«Garraio Jasangarriaren Gidaplana-Garraio-politika erkidea Euskadin, 2002-2012» delakoak, Eusko Jaurlaritzak 2002ko azaroaren 19an onartutakoak, bost helburu ditu, argi-argiak, Europako Batasunaren Garraioaren Liburu Zuriarekin bat datozenak: 1. Ekonomia-garapenaren eta garraio-eskaeraren hazkundearren arteko lotura etetea; 2. Irisgarritasun unibertsala eta jasangaria erdiestea; 3. Garraiobideen arteko oreka berria sustatzea; 4. Euskadik European duen kokaleku estrategikoa indartzea 5. Garraio jasangarrirako bidean aurrera egitea.

Helburu horiek lortuko badira, jasangarritasunaren kultura sustatu behar da, eta garraioaren planifikazioa eta antolamendua horretan zerikusia duten herri-administracio guztien arteko koordinazioaren bidez egin. Helburu horiek erdiestearren, estrategia eta ekintza-ilido batzuk ezarri dira garraioaren arlorako, gure Autonomia Erkidego honetan 10 urteko epean gauzatzeko.

Gidaplan hori garatzeko oinarrietako bat da Garraio Agintaritza eratzea; antolamendu-, planifikazio- eta koordinazio-organoa izango da bera, eta aipatutako gidaplan horretan ezarritako helburu eta estrategiak gauzatzeko langintza hartuko du bere gain. Euskadiko Garraio Agintaritza tresna ezinbestekoa izango da gida-planak eragingo duen egoera berria koordinatu eta koherenziaz hornitzeko; izan ere, ezarri beharreko alda-keta horiek ezartzeko beharrezkoa da administrazio guztiak zuzen-zuzenean parte hartzea.

Euskadiren errealtitate geografikoa zaila da: orografia gaitza du, demografia-dentsitate handia eta administracio-antolaketako sistema berezia, eta horrek, denboraren joanean, hiri-sistema gune anitzekoa deritzona ekarri du –horrela deitzen diote Lurraldearen Antolamenduko Artezpideek–; sistema horrek, mugikortasunaren halabeharrarengatik, garraio-eskari handiko joan-etorri bizi-bizia eragiten ditu, udalerri eta eskualde-

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-7039

LEY 5/2003, de 15 de diciembre, de la Autoridad del Transporte de Euskadi.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley

LEY 5/2003, DE 15 DE DICIEMBRE, DE LA AUTORIDAD DEL TRANSPORTE DE EUSKADI.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El «Plan Director del Transporte Sostenible-La política común de transportes en Euskadi 2002-2012», aprobado por el Consejo de Gobierno en fecha 19 de noviembre de 2002, persigue, en consonancia y de acuerdo con el Libro Blanco del Transporte de la Unión Europea, cinco claros objetivos: 1. Desvincular el desarrollo económico del incremento de demanda del transporte; 2. Lograr una accesibilidad universal y sostenible; 3. Impulsar un nuevo equilibrio de los modos de transporte; 4. Potenciar la posición estratégica de Euskadi en Europa; y 5. Avanzar hacia un transporte sostenible.

El logro de dichos objetivos pasa necesariamente por impulsar una cultura de sostenibilidad mediante una planificación y ordenación del transporte de forma coordinada por todas las administraciones implicadas. Para la consecución de estos objetivos se establecen una serie de estrategias y líneas de actuación a llevar a cabo en nuestra Comunidad Autónoma en materia de transportes en un horizonte temporal de 10 años.

Dicho plan contempla como uno de sus pilares básicos para su desarrollo la creación de la Autoridad del Transporte como órgano ordenador, planificador y coordinador, y sobre el que recaerá la tarea de implementar los objetivos y estrategias establecidos por el plan director. La Autoridad del Transporte de Euskadi es el instrumento clave para coordinar y dotar de coherencia al nuevo escenario que el plan prefigura, pues es necesaria la implicación directa de todas las administraciones en la implantación de los cambios.

La compleja realidad geográfica de Euskadi, con su accidentada orografía, su densa población y su peculiar sistema de organización socioadministrativa, se ha manifestado a través del tiempo en lo que las Directrices de Ordenación del Territorio han definido como un sistema polinuclear de ciudades, generador de intensos flujos de demanda de transporte causados por una movilidad esencial y necesaria, que trasciende no sólo de los

egiturez gaindikoak, eta are lurrealde historikoez gaindikoak ere; horri, gainera, Euskadiren kokaleku geoes-trategikoaren ondorio, mugaz gaindiko joan-eteorriak gehitu behar zaizkio.

Historian zehar, garraiobide bakoitzean, era bateko eta besteko konponbideak eman izan zaizkie kontu batzueta eta besteetan sortu izan diren arazoei, direla es-kumenen inguruko arazoak, titulartasunaren inguru-koak, eginkizunei dagozkienak –eskaintzak elkarren gainera pilatzea, garraioen arteko loturarik eza–edo tari-fen ingurukoak, eta komeni da horiek guztiak bate-ratu eta arrazionalizatzea; batez ere, norberaren ibilgai-lua erabiltzeko joera goraka doan honetan, azpiegitu-rak itoaraziz eta sistema jasangaitz bihurraraziz.

Garraio-sistema bateratua ezartzeko kezka hori en-goitik baten 1975 urtean Bizkaiko Garraioen Partzuer-goa Sortzeko Legea egin zenean; lege horretan aurrei-kusten zenez, erakunde horrek lurreko garraioa koor-dinatu zezakeen lurrealde historiko guztian.

Lege horretako aurreikuspen hori gorabehera, zail da garraio guztien antolaketa-, koordinazio- eta planifika-zio-erakunde bat eratzea, gai horretako eskumenak ad-ministratzio askoren artean baitaude barreiatuta, eta zer-bitzu publiko horren kudeaketa era bateko eta besteko enpresen artean –publiko zein pribatu– egiten baita.

Eskua duten administratzioak eurak, horren zaitasun-naz jabetuta, hainbat urtean ahaleginetan ibili dira zer-bitzua eraginkortasun handiagoz emateko elkarren arteko estrategia bat ezarri nahian, legediak administra-zioen arteko lankidetza eta koordinaziorako eskaintzen dituen tresnak baliatuz (tresna horiexek dira lege honen beronen oinarri).

Horrela bada, Autonomia Erkidegoko Erakunde Er-kideen eta Lurrealde Historikoetako Foru Erakundeen Arteko Harremanen gaineko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 2. artikuluan ezartzen denez, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurrealde historikoeta-ko foru-erakundeen arteko harremanak lankidetza- eta elkartasun-printzipioetan oinarrituko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren baitako era bateko eta besteko administrazioek, nork bere eskumenak darabiltza-larik, eraginkortasun- eta koordinazio-printzipioen arabera jokatuko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatu-ko 10. artikuluko 32. eta 34. paragrafoetan oinarritu-ta sortzen da Euskadiko Garraio Agintaritza; izan ere, paragrafo horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen ekslusiboa du gai hauetan: trenbideak, lurreko garraioa, itsasokoak, ibaietakoak eta kable bidezkoak, portuak, heliportuak, aireportuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Meteorologia Zerbitzua –Konstituzioko 149.1.20.ean ezarritakoaren kalterik gabe–, ga-raiaoren arloko kontratazio-zentroak eta kargalekuak. Era berean, Autonomia Estatutuko 12.9 artikuluan eza-rritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren

municipios y áreas funcionales, sino incluso de los pro-pios territorios históricos, a lo que hay que añadir los flujos transfronterizos derivados de su situación geoes-tratégica.

El devenir histórico ha ido alumbrando distintas so-luciones en cada uno de los modos del transporte con concreciones diversas, tanto en el ámbito competencial y en el de titularidades como en el funcional –con superposiciones de ofertas, omisiones de correspon-den-cias– y tarifario, que conviene integrar y racionalizar, máxime al observar el uso intensivo del vehículo pri-vado con la saturación de las infraestructuras e insoste-nibilidad de todo el sistema.

La preocupación por establecer un sistema integra-do del transporte subyace ya desde la ley de creación del Consorcio de Transportes de Bizkaia de 1975, don-de se preveía la posibilidad de que este ente coordina-ra el transporte terrestre de todo el territorio histórico.

A pesar de esta pronta previsión, la constitución de un órgano ordenador, coordinador y planificador de todos los transportes es una cuestión problemática, debi-do al reparto competencial en esta materia en multitud de administraciones y a que la gestión de este servicio público se realiza desde diferentes empresas, ya sean pú-blicas o privadas.

Las propias administraciones competentes, conscientes de esta dificultad, llevan unos años haciendo un es-fuerzo por diseñar una estrategia común para el ofrecimiento del servicio de una forma más eficiente, basán-dose en los instrumentos de colaboración y coordina-ción entre administraciones que ofrece el marco norma-tivo y que son precisamente el fundamento de la pre-sente ley.

De este modo, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Co-munidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Te-rritorios Históricos, establece en su artículo 2 que las relaciones entre las instituciones comunes del País Vas-co y los órganos forales de sus territorios históricos se basarán en los principios de colaboración y solidaridad, y que, en el ejercicio de sus respectivas competencias, las respectivas Administraciones del País Vasco actuarán de acuerdo con los principios de eficacia y coordi-nación.

La creación de la Autoridad del Transporte de Eus-kadi se produce en virtud del artículo 10, apartados 32 y 34, del Estatuto de Autonomía del País Vasco, que establece como competencias exclusivas de la Comuni-dad Autónoma del País Vasco las de ferrocarriles, trans-portes terrestres, marítimos, fluviales y por cable, puer-tos, helipuertos, aeropuertos y Servicio Meteorológico del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artí-culo 149.1.20 de la Constitución, y de los centros de contratación y terminales de carga en materia de trans-portes. Asimismo, el artículo 12.9 del Estatuto de Au-tonomía establece que corresponde a la Comunidad Au-

eskumena izango da salgaien eta bidaiaien garraioaren antolamenduaren arloko Estatuaren legeria betearaztea, garraio hori Autonomia Erkidegoaren lurrardearen baitan hasi eta amaitzen denean, nahiz eta garraio hori Konstituzioko 149. artikuluko 1. paragrafoko 21 zenbakian aipatutako Estatuaren titularitateko azpiegiturak erabiliz egin; hala ere, horrek ez dio kalterik eraingo Estatuak beretzat gorde dezakeen zuzeneko betearazpenari.

Bestalde, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurrealde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, foru-erakundeeek eskumen eksklusiboa dute bide eta errepideen planifikazio, egitasmo, eraikuntza, artatze, aldaketa, finantzaketa, erabilera eta ustiapenaren arloetan; eskumen hori Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek onartutako Errepide Plan Nagusiaren baitan erabiliko dute, eta guztsia Autonomia Estatuiko 10.34 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe. Horrez gain, lege horretako 10. artikuluan ezartzen denez, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagozkie errepideko garraiobide mekanikoen arloko legegintza, erregelamendu bidezko garapena, goi-mailako ikuskaritza, plangintza eta koordinazioa, eta lurrealde historikoek, aldiz, lege hora onartu zenean indarrean ziren Estatuarekiko hitzarmen ondorioz Arabak bere lurrealdean zituen ahalmenak erabiliko dituzte beren lurrealdeetan, ahalmen berberak eta izaera berekoak.

Gai honetan eskumena hainbat administrazioek dutela eta horiek elkarren artean koordinatu behar dute la jabetuta, hortixe sortzen da lege-mailako arau baten beharra, haren bidez Euskal Autonomia Erkidego oso-rako garraio-sistema bateratu bat eratu ahal izateko tresna eta mekanismoak sortzeari ekiteko. Lege honen helburua da garraioaren gure antolaketa instituzionala harmonizatu eta orekatzea. Euskadiko garraio-politikaren eraginkortasunak eta eragimenak –beharrizanen araberakoek– eskatzen dute hori, eta Europar Batasunaren garraioaren arloko politika erkidearen paradigmata doitu beharrak ere bai.

Oinarriz horien gainean sortzen da Euskadiko Garraio Agintaritza, garraioaren antolamenduaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren aholku- eta koordinazio-organo goren gisa, Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailari atxikia.

Legearen I. kapituluak Euskadiko Garraio Agintaritzaren xedea eta eremua arautzen ditu, eta herri-administrazioen arteko lankidetza-printzipioa jasotzen du.

II. kapituluak Euskadiko Garraio Agintaritzaren helburuak, eginkizunak, antolaketa eta jarduteko modua arautzen ditu. Eginkizunak honela banatzen dira: antolaketa-koak, koordinazio-koak, plangintza-koak, goi-mailako ikuskaritzakoak eta aholkularitzakoak.

tónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en materia de ordenación del transporte de mercancías y viajeros que tenga su origen y destino dentro del territorio de la Comunidad Autónoma, aunque discurra sobre las infraestructuras de titularidad estatal a que hace referencia el número 21 del apartado 1 del artículo 149 de la Constitución, sin perjuicio de la ejecución directa que se reserve el Estado.

Por su parte, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece en su artículo 7 las competencias exclusivas de los órganos forales en materia de planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos, conforme al Plan General de Carreteras aprobado por las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, todo ello sin merma de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía. Y además en su artículo 10 establece que corresponden a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma las competencias de legislación, desarrollo normativo, alta inspección, planificación y coordinación en materia de transportes mecánicos por carretera, ejerciendo los territorios históricos «las mismas facultades y con el mismo carácter que en el presente ostenta Álava, dentro de su territorio, de acuerdo con los convenios vigentes con el Estado».

Desde esta conciencia de la existencia de diversas administraciones competentes en la materia que han de coordinarse entre sí, es desde donde nace la necesidad de abordar a través de una norma con rango de ley la creación de los instrumentos y mecanismos que posibiliten un sistema integrado de transporte para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco. Armonizar y equilibrar nuestra organización institucional del transporte es el objetivo de la presente ley. La eficacia y eficiencia de la política de transporte de Euskadi en consonancia a sus necesidades y su adecuación a los paradigmas comunitarios en materia de transporte así lo exigen.

Sobre estas bases se crea la Autoridad del Transporte de Euskadi, como órgano superior consultivo y de coordinación de la Administración General del País Vasco en materia de ordenación del transporte, que estará adscrita al Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco.

El capítulo I de la ley está dedicado a regular el objeto y ámbito de la Autoridad del Transporte de Euskadi, recogiendo el principio de colaboración entre Administraciones públicas.

El capítulo II regula los objetivos, funciones, organización y funcionamiento de la Autoridad del Transporte de Euskadi. Las funciones se distribuyen en las de ordenación, coordinación, planificación, alta inspección y consultivas.

III. kapituluan zehazten denez, Euskadiko Garraio Agintaritzak, eskumena duten instituzioen eta erakundeen arteko lankidetza-hitzarmen bitarbez, garraioaren lurralte-agintaritzak sortzea sustatuko du.

I. KAPITULUA XEDEA ETA EREMUA

1. artikulua.— Xeda.

1.— Lege honen xeda da Euskadiko Garraio Agintaritzak sortzea; agintaritzak hori izango da garraioaren antolamenduaren eta garraio-azpiegituren gaietan Euskal Autonomia Erkidegoaren koordinazio- eta aholku-erakunde gorena, eta lege honetan esleitutako eskumenak eta eginkizunak izango ditu, bai eta beste edozein lege- edo erregelamendu-xedapenei eslei diezazkioekin ere. Garraio-sistema bateratu bat benetan ezartzeko bidea irekitzearren eratzeko da erakunde berri hau.

2.— Euskadiko Garraio Agintaritzak garraio-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da, eta sail horrek haren eskura jarriko ditu esleituta dituen eginkizunak betetzeko behar dituen lantegiak eta bitarteko materialak.

2. artikulua.— Eremua.

Euskadiko Garraio Agintaritzak arlo hauetan beteko ditu bere eginkizunak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren heinean: trenbide, errepide, itsaso, ibai eta kable bidezko garraioa; portu, heliportu eta aireportuak, eta garraioaren jarduera lagun-garri eta osagarriak, arlo honetan beste administrazioek dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

3. artikulua.— Herri-administrazioen arteko lankidetzen printzipioa.

Euskadiko Garraio Agintaritzan parte hartzen duten herri-administrazioek betebehar hauek izango dituzte euren arteko harremanetan: elkarri informazioa ematea, elkarren arteko lankidetza eta koordinazioa eta elkarren-ganako begirunea.

II. KAPITULUA EUSKADIKO GARRAIO AGINTARITZA

4. artikulua.— Helburuak.

Hauek dira Euskadiko Garraio Agintaritzaren helburuak:

a) Zeregin hauetan lagundu behar du: garraioa antolatzeko politikak zehazten, garraio-politika erkidea koordinatzen, era bateko eta besteko garraiobideak planifikatzen, garraio-politikak lurralte-orekaren arabera doitzentz, eta, oro har, garapen jasangarria lortzen eta garraioaren arloko politika erkideak gauzatzen eta betearazten.

El capítulo III recoge que la Autoridad del Transporte de Euskadi promoverá la creación de las diferentes Autoridades Territoriales del Transporte, a través de la celebración de convenios de colaboración entre las instituciones y entidades competentes.

CAPÍTULO I OBJETO Y ÁMBITO

Artículo 1.— Objeto.

1.— El objeto de la presente ley es la creación de la Autoridad del Transporte de Euskadi, como órgano superior consultivo y de coordinación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ordenación del transporte y sus infraestructuras, con las competencias y funciones que se le atribuyen en esta ley y las que puedan asignársele en cualquier otra disposición legal y reglamentaria, a fin de que se posibilite la efectiva implantación de un sistema integrado de transporte.

2.— La Autoridad del Transporte de Euskadi estará adscrita al Departamento competente en materia de transportes del Gobierno Vasco, el cual pondrá a su disposición los medios personales y materiales necesarios para la realización de sus funciones.

Artículo 2.— Ámbito.

La Autoridad del Transporte de Euskadi ejercerá sus funciones en relación con los transportes por ferrocarril y por carretera, marítimos, fluviales y por cable, puertos, helipuertos y aeropuertos, así como respecto a las actividades auxiliares y complementarias del transporte, que sean competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de las competencias que tengan atribuidas otras administraciones en estas materias.

Artículo 3.— Principio de colaboración entre Administraciones públicas.

Las Administraciones públicas que participan en la Autoridad del Transporte de Euskadi ajustarán sus relaciones recíprocas a los deberes de información mutua, colaboración, coordinación y respeto entre ellas.

CAPÍTULO II DE LA AUTORIDAD DEL TRANSPORTE DE EUSKADI

Artículo 4.— Objetivos.

Son objetivos de la Autoridad del Transporte de Euskadi:

a) Coadyuvar a la definición de las políticas de ordenación del transporte, a la coordinación de la política común de transportes, a la planificación de las distintas modalidades del transporte y a ajustar las políticas de transporte al equilibrio territorial, y en general al desarrollo sostenible, así como implementar y ejecutar las políticas comunitarias en materia de transporte.

b) Garraioaren arloan eskumena duten erakunde guztiak beren ahalmen publikoak koordinatuki erabil dituzten sustatzea eta erraztea; administrazioen arteko lankidetza bere gain hartza eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan garraio-politikei buruz biltzen diren interes askotarikoak batzea.

c) Zerbitzu, sare eta tarifen arteko koordinazioa sustatu eta laguntzea, eta erabiltzailearen eskura eskaintza hobea jartza, azken xedea garraio kolektiboaren era-bilera indartu eta eragitea izanik.

d) Garraio sare bakar eta osoa sustatzea.

e) Garraio arrazionalago eta eraginkorragoa erdiets dadin saiatzea, garapen jasangarriaren gizarte, ingurumen, eta ekonomiaren alderdiak aintzat hartu eta era-bat bateratuta.

f) Baliabide publiko eta pribatuak ahalik eta ondoen erabiltzea, era bateko eta besteko garraiobideak elkarren artean lotzeko gaitasuna indartzearren eta Europa-ko garraio-sisteman sartzarren.

5. artikulua.- Eginkizunak.

1.- Euskadiko Garraio Agintaritzak eginkizun hauek izango ditu:

1.1.- Antolatzekoak.

a) Garraioa antolatzeko politikaren irizpide oinarrizkoak lantza, Autonomia Estatutuan eta aplikatzekoaren gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

b) Garraioren antolamenduaren arloan arauak egin edo aldatzeko proposamenak egitea.

1.2.- Plangintzakoak.

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan garraio-zerbitzu eta -azpiegituren plangintza koordinatua egiten laguntza.

b) Autonomia Erkidegoaz gaindiko eta mugaz gaindiko garraioaren plangintzan laguntza esparru horietako agintariekin batera.

1.3.- Koordinaziokoak.

a) Beharrezko diren neurriak proposatzea garraioaren arloan eragina duten lurralde-plangintzakoekintzak koordinatzeko nahiz Jaurlaritzako sailek eta garraioaren arloan eskumena duten administrazioek ekintza horiek gauza ditzaten.

b) Garraioaz besteko gai batzuetan eskumenak dituzten organismo eta erakundeekin koordinatzeko mekanismoak proposatzea garraioaren arloan eragin dezaketen ekinbideak gauzatzen dituztenerako.

c) Garraioari eragiten dioten jardueretan ari diren zernahi gisatako erakundeekiko lankidetza proposatzea akordio, hitzarmen eta programa-kontratuen bitartez; orobat beste herri-administrazio batzuekin, Garraio Agintaritzaren eginkizun-eremuari dagozkion gaien inguruaren.

b) Promover y facilitar el ejercicio coordinado de las potestades públicas por todas las instituciones con competencias en materia de transportes, asumir la cooperación interadministrativa y conciliar los diversos intereses que confluyen en el ámbito geográfico del País Vasco en relación con las políticas de transporte.

c) Fomentar e impulsar la coordinación de los servicios, redes y tarifas, y la puesta a disposición del usuario de una mejor oferta, con el fin último de potenciar y estimular el uso del transporte colectivo.

d) Promover la red de transportes única e integral.

e) Impulsar la consecución de un transporte más racional y eficiente mediante la integración plena de los aspectos sociales, medioambientales y económicos del desarrollo sostenible.

f) Optimizar los recursos públicos y privados para impulsar la interoperabilidad de los diferentes modos de transporte y su inserción en el sistema europeo de transporte.

Artículo 5.- Funciones.

1.- La Autoridad del Transporte de Euskadi ejercerá las siguientes funciones:

1.1.- De ordenación.

a) Elaborar criterios básicos de la política de ordenación del transporte de conformidad con lo establecido en el Estatuto de Autonomía y demás normativa de aplicación.

b) Proponer la elaboración o modificación de disposiciones normativas en materia de ordenación del transporte.

1.2.- De planificación.

a) Contribuir a la planificación coordinada de los servicios e infraestructuras de transporte en el ámbito de la Comunidad Autónoma vasca.

b) Colaborar en la planificación del transporte supracomunitario y transfronterizo junto con las autoridades correspondientes.

1.3.- De coordinación.

a) Proponer las medidas precisas para coordinar las actuaciones de planificación territorial con incidencia en el ámbito del transporte y su ejecución por los distintos Departamentos del Gobierno, así como por las Administraciones con competencias en materia de transportes.

b) Proponer mecanismos de coordinación con aquellos organismos e instituciones que, teniendo competencias en otras materias, puedan desarrollar actuaciones que incidan en el ámbito del transporte.

c) Proponer la cooperación mediante acuerdos, convenios y contratos-programa con cualesquier entidades cuya actividad afecte al transporte, así como con otras Administraciones públicas sobre materias relacionadas con el ámbito funcional de la Autoridad.

d) Garraioaren lurrarde-agintaritzei –eratutakoan– beren lurrarde historikoetako edo jardute–eremuetako garraioaren egoerari buruzko informazioa eskatzea.

e) Garraio-zerbitzu publikoen gaineko informazioa sustatzea.

f) Urtero txosten bat ematea Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren egoeraren gainean.

1.4.– Goi-mailako ikuskaritzakoak.

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren baitako goi-mailako ikuskaritza-eginkizunak bateratzea bermatzeko oinarrizko irizpideak proposatzea.

b) Ikuskaritzako urteroko planetarako irizpideak ezartzea ikuskaritzaren arloan eskumena duten erakundeekin koordinatuta.

c) Ikuskaritzako ekinaldi orokor eta zehatzak egitea proposatzea.

1.5.– Konsultakoak.

Gai hauen inguruko txostenak ematea dagokio Euskadiko Garraio Agintaritzari:

a) Errepide-planen gaineko txostenak egitea, hala plan orokoren gainekoak nola lurrardearen arloko planen gainekoak.

b) Trenbide, portu, aireportu, heliportu, gune logistiko eta askotariko garraiobideen guneen gaineko lurrardearen arloko planen gainean txostenak egitea.

c) Eratzen diren Garraioaren lurrarde-agintaritzen esstatutuen gaineko txostenak egitea.

d) Lurralte-antolamenduko tresnen gainean txostenak egitea, garraioan eragina izan dezaketen alderdiei buruz.

e) Zerbitzuak ustiatzeko administrazio-emakiden esleipen, aldaketa edo amaitzeei buruzko expedienteen gainean txostenak egitea, baldin eta zerbitzu horiek lurrarde historiko batean baino gehiagotan badute eragina edo beste garraio-modu batzuek ematen dituztenekin bat badatoz.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta garraioen arloan garrantzi berezia duten beste administrazio batzuen arteko lankidetzarako proposamen eta akordioen gainean txostenak egitea.

g) Indarrean dagoen legeriaren arabera aginduzkoak diren txostenak egitea, eta, bereziki, Lurreko Garraioen Antolamenduaren gaineko Legeak eta hura garatzeko arauak Lurreko Garraioen Estatuko Kontseiluari esleitzten dizkioten eginkizunak betetzea Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenetan.

2.– Horiez gain, Euskadiko Garraio Agintaritzak lego- edo erregelamendu-xedapenen bidez berari esleitu-tako beste edozein eginkizun beteko du.

6. artikulua.– Txostenak.

d) Solicitar a las Autoridades Territoriales del Transporte que en su momento se constituyan información sobre el estado del transporte en sus respectivos territorios históricos o ámbitos de actuación.

e) Fomentar la información sobre los servicios públicos de transporte.

f) La emisión de un informe anual sobre la situación del transporte en la Comunidad Autónoma vasca.

1.4.– De alta inspección.

a) Proponer los criterios básicos para garantizar la uniformidad de las funciones de inspección en la Comunidad Autónoma vasca.

b) Establecer criterios para los planes anuales de inspección, en coordinación con las instituciones competentes en materia de inspección.

c) Proponer la realización de campañas generales y específicas de inspección.

1.5.– De consulta.

Corresponde a la Autoridad del Transporte de Euskadi informar en las siguientes materias:

a) Informar sobre los planes de carreteras, tanto generales como territoriales sectoriales.

b) Informar sobre los planes territoriales sectoriales ferroviarios, de puertos, aeropuertos, helipuertos, centros logísticos y centros intermodales.

c) Informar sobre los estatutos de las Autoridades Territoriales del Transporte que se creen.

d) Informar sobre los instrumentos de ordenación territorial en los aspectos que tengan incidencia en el transporte.

e) Informar los expedientes de otorgamiento, modificación y extinción de concesiones administrativas de explotación de servicios cuando afecten a más de un territorio histórico o resulten coincidentes con servicios prestados por otros modos de transporte.

f) Informar propuestas y acuerdos de colaboración de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco con otras Administraciones que tengan especial relevancia en materia de transportes.

g) Emitir los informes que sean preceptivos conforme a la legislación vigente, y, particularmente, ejercer las funciones que la ley de Ordenación de los Transportes Terrestres y sus normas de desarrollo atribuyen al Consejo Nacional de Transportes Terrestres, respecto a aquellas competencias cuyo ejercicio corresponda a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Además la Autoridad del Transporte de Euskadi ejercerá cualesquiera otras funciones que pudieran asignarle mediante disposición legal o reglamentaria.

Artículo 6.– De los informes.

1.– Garraio Agintaritzak gehienez hiru hilabeteko epea izango du, eskabidea jasotzen duenetik kontatzen hasita, lege honen arabera ematea dagozkion txostenak emateko.

2.– Aurreko artikuluko 1.5 paragrafoan aipatutako txostenak aginduzkoak dira.

7. artikulua.– Euskadiko Garraio Agintaritzaren antolamenduaz.

1.– Euskadiko Garraio Agintaritza Osoko Bilkuraren, atalen eta txosten-batzordeen bidez jardun ahal izango da.

2.– Osoko Bilkura hiru hilabeterik behin bilduko da gutxienez, aldez aurretik Osoko Bilkurako buruak deituta edo Osoko Bilkurako kideen laurdenek eskatuta.

8. artikulua.– Osoko Bilkuraren osaera.

1.– Euskadiko Garraio Agintaritzaren Osoko Bilkura honela osatuko da:

– Burua: Garraio eta Herri Lan sailburua.

– Buruordea: Garraio eta Herri Lan sailburuordea.

– Kideak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren 8 ordezkari.

– Foru-aldundien 6 ordezkari:

– Arabako Foru Aldundiaren 2 ordezkari.

– Bizkaiko Foru Aldundiaren 2 ordezkari.

– Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2 ordezkari.

– Udalaren 4 ordezkari:

– Bilboko Udalaren ordezkari 1.

– Donostiako Udalaren ordezkari 1.

– Gasteizko Udalaren ordezkari 1.

– Euskal Autonomia Erkidegoko udal gehien ordezkatzen dituen udalen elkartea aukeraturiko ordezkari 1.

2.– Buruak beste pertsona batzuk edo beste erakunde batzuetako ordezkariak gonbidatu ahal izango ditu Agintaritzaren osoko bilkuretarra etor daitezen, hitzarekin eta botorik gabe parte hartzera, aztertu beharreko gaiaren inguruau jakintza handia dutelako edo gai horretan nabarmendu egiten direlako.

3.– Euskadiko Garraio Agintaritzaren Osoko Bilkurak idazkari bat izango du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko kideetako batek beteko du kargu hori.

9. artikulua.– Idazkaritza Teknikoa.

1.– Euskadiko Garraio Agintaritzaren Idazkaritza Teknikoa Garraio eta Herri Lan Sailean gai horren inguruko eskumena duen zuzendaritzari dagokio.

1.– La Autoridad del Transporte deberá emitir, en el plazo máximo de tres meses contados desde la recepción de la solicitud, los informes que le corresponden de conformidad con la presente ley.

2.– Los informes establecidos en el apartado 1.5 del artículo anterior tendrán carácter preceptivo.

Artículo 7.– De la organización de la Autoridad del Transporte de Euskadi.

1.– La Autoridad del Transporte de Euskadi podrá actuar en pleno, en secciones y en ponencias.

2.– El Pleno se reunirá previa convocatoria de su presidente, al menos una vez cada trimestre, o cuando lo solicite la cuarta parte de sus miembros.

Artículo 8.– Composición del Pleno.

1.– El Pleno de la Autoridad del Transporte de Euskadi tendrá la siguiente composición:

– Presidente: Consejero de Transportes y Obras Públicas.

– Vicepresidente: Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas.

– Vocalías:

– 8 representantes de la Administración General del País Vasco.

– 6 representantes de las Diputaciones forales:

– 2 representantes de la Diputación Foral de Álava.

– 2 representantes de la Diputación Foral de Bizkaia.

– 2 representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

– 4 representantes de los Ayuntamientos:

– 1 representante del Ayuntamiento de Bilbao.

– 1 representante del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

– 1 representante del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

– 1 representante elegido por la asociación de municipios que represente a la mayoría de los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– El presidente podrá invitar a otras personas, en razón a su especial conocimiento o significación en la materia a tratar, o a representantes de otras instituciones, para que asistan a sesiones de la Autoridad con voz pero sin voto.

3.– El Pleno de la Autoridad del Transporte de Euskadi contará con un secretario, cargo que corresponderá a uno de los vocales de la Administración General del País Vasco.

Artículo 9.– Secretaría Técnica.

1.– La Secretaría Técnica de la Autoridad del Transporte corresponderá a la Dirección del Departamento de Transportes y Obras Públicas competente por razón de la materia.

2.- Idazkaritza horri dagokio gaiak prestatzea eta, hala behar balitz, lege honetako 5. artikuluan aipatutako txosten-proposamenak egitea, non eta eginkizun hori ez den berariaz txosten-batzorde baten edo beste organo baten gain utzi, gaiaren berezitasuna dela-eta.

10. artikulua.— Osoko Bilkuraren eginkizunak.

Osoko Bilkurari dagokio:

a) Euskadiko Garraio Agintaritzari esleitutako eginkizunak garatzeko beharrekoak diren erabakiak hartzea.

b) Lege- edo erregelamendu-mailako xedapenen bidez esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

11. artikulua.— Osoko Bilkurako buruaren eginkizunak.

1.— Osoko Bilkurako buruari dagokio:

a) Euskadiko Garraio Agintaritzaren ordezkari izatea.

b) Osoko bilkuretarako deialdia egitea, bilkuretan buru izatea eta gai-zerrenda ezartzea; baita kide anitzeko organo bateko buruari dagozkion eginkizunak betetzea ere, hala nola bozeten berdinketa gertatzen bada kalitateko bozarekin ebaiztea.

c) Garraioaren lurralte-agintaritzekiko harremanak zuzentzea, bai eta, Garraio Agintaritzaren eginkizunen eremuko gaietan, herri-administrazioetako organo be-tearazleekiko harremanak ere.

d) Garraio Agintaritzaren administrazio-jarduera eta jarduera teknikoa zuzendu eta gainbegiratzea.

e) Osoko Bilkurari Euskadiko Garraio Agintaritzaren antolaketaren eta jarduteko moduaren erregelamendua proposatzea, onar dezan.

f) Lege- edo erregelamendu-mailako xedapenen bidez esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

2. Burua ez dagoenean, buruordeak beteko ditu haren eginkizunak.

12. artikulua.— Jarduteko modua.

1.— Euskadiko Garraio Agintaritzak erregelamendu bat landu eta onartuko du bere antolaketaren eta jarduteko moduaren araubidea ezartzeko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.— Osoko bilkuran eztabaidak egin eta erabakiak hartzeko, hauek egon beharko dute bertan: buruak edo haren ordezkoak, Osoko Bilkurako kideen erdiek eta idazkariak edo haren ordezkoak.

3.— Bertaratutakoen botoen erabateko gehiengoa beharko da erabakiak hartzeko.

13. artikulua.— Atalak eta txosten-batzordeak.

Osoko Bilkurak egoki deritzen atalak eta txosten-batzordeak sortu ahal izango ditu, Euskadiko Garraio Agintaritzak eraginkortasunez jardun dezan.

2.— A esta secretaría le corresponderá la preparación de los asuntos y, en su caso, las propuestas de informe previstas en el artículo 5 de esta ley, salvo que haya sido expresamente encomendada tal función a alguna ponencia o a otro órgano en atención a la especialidad de la materia.

Artículo 10.— Funciones del Pleno.

Corresponde al Pleno:

a) Adoptar los acuerdos necesarios en el desarrollo de las funciones atribuidas a la Autoridad del Transporte de Euskadi.

b) Las demás competencias que se le atribuyan mediante disposición legal o reglamentaria.

Artículo 11.— Funciones del presidente.

1.— Corresponde al presidente del Pleno:

a) Representar a la Autoridad del Transporte de Euskadi.

b) Convocar, presidir y fijar el orden del día de las reuniones del Pleno y ejercer las funciones inherentes a la presidencia de un órgano colegiado, decidiendo los empates con voto de calidad.

c) Dirigir las relaciones con las Autoridades Territoriales del Transporte, así como con los órganos ejecutivos de las Administraciones públicas, en materias del ámbito funcional de la Autoridad del Transporte.

d) Dirigir y supervisar el funcionamiento administrativo y técnico de la Autoridad del Transporte.

e) Proponer al Pleno la aprobación del reglamento de organización y funcionamiento de la Autoridad del Transporte de Euskadi.

f) Las demás competencias que se le atribuyan mediante disposición legal o reglamentaria.

2.— El vicepresidente realizará las funciones del presidente en ausencia de este.

Artículo 12.— Funcionamiento.

1.— La Autoridad del Transporte de Euskadi elaborará y aprobará un reglamento en el que se establezca su régimen de organización y funcionamiento, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.— En todo caso, las deliberaciones y acuerdos del Pleno requieren la presencia del presidente o de quien haga sus veces, la de la mitad al menos de sus miembros, y la del secretario o quien le sustituya.

3.— Los acuerdos se adoptarán por mayoría absoluta de votos de los asistentes.

Artículo 13.— Secciones y ponencias.

Para el eficaz funcionamiento de la Autoridad del Transporte de Euskadi, el Pleno podrá crear las secciones y ponencias que se estimen convenientes.

III. KAPITULUA GARRAOAREN LURRALDE AGINTARITZAK

14. artikulua.— Garraioaren lurrealde-agintaritzak sortzea.

Euskadiko Garraio Agintaritzak, bere ekimenez edo interesa duten foru- eta toki-erakundeeek eskatuta, garraioaren lurrealde-agintaritzak sortza sustatuko du, es-kumena duten erakunde eta entitateen artean lankide-tza-hitzarmenak eginez; garraioaren lurrealde-agintaritza horiek kasuan kasuko erabide juridikoa izango dute.

15. artikulua.— Garraioaren lurrealde-agintaritzzen araubidea.

Garraioaren lurrealde-agintaritzten izaera, helburuak, eginkizunak, egitura, antolaketa eta finantzaketa haien sorrera-agirian egongo dira ezarrita.

16. artikulua.— Jarduteko irizpideak.

Garraioaren lurrealde-agintaritzek Euskadiko Garraio Agintaritzak emandako oinarrizko irizpideen arabera beteko dituzte euren eginkizunak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabe geratzen da lege honetan xedatutakoaren aurka doan maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.— Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari lege hau garatu eta ezartzeko beharrezko diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena.— Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bihamarunean hasiko da indarra izaten.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadi-ko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko abenduaren 19a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

CAPÍTULO III DE LAS AUTORIDADES TERRITORIALES DEL TRANSPORTE

Artículo 14.— Creación de las Autoridades Territoriales del Transporte.

La Autoridad del Transporte de Euskadi promoverá, a iniciativa propia o a instancia de los entes forales y locales interesados, la creación de diferentes Autoridades Territoriales del Transporte, las cuales adoptarán la figura jurídica correspondiente, mediante la celebración de convenios de colaboración entre las instituciones y entidades competentes.

Artículo 15.— Régimen de las Autoridades Territoriales del Transporte.

Las Autoridades Territoriales del Transporte tendrán la naturaleza, objeto, funciones, estructura, organización y financiación que se establezcan en el instrumento de creación de las mismas.

Artículo 16.— Criterios de actuación.

Las Autoridades Territoriales del Transporte desarrollarán sus funciones de acuerdo con los criterios básicos emanados de la Autoridad del Transporte de Euskadi.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en la presente ley.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se autoriza al Consejo de Gobierno Vasco para dictar las demás disposiciones precisas para el desarrollo y ejecución de la presente ley.

Segunda.— La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.